

§C6

**NORMA FORAL 4/2021,
DE 20 DE OCTUBRE, DE
ELECCIÓN DE ALCAL-
DES PEDÁNEOS Y AL-
CALDESAS PEDÁNEAS
DE LAS ENTIDADES LO-
CALES MENORES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO
DE BIZKAIA.**

**BIZKAIKO LURRALDE
HISTORIKOKO ERA-
KUNDE LOKAL TXIKIE-
TAKO AUZO-ALKATEEN
HAUTAKETARI BURUZ-
KO URRIAREN 20KO
4/2021 FORU-ARAU**

NORMA FORAL 4/2021, DE 20 DE OCTUBRE, DE ELECCIÓN DE ALCALDES PEDÁNEOS Y ALCALDESAS PEDÁNEAS DE LAS ENTIDADES LOCALES MENORES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

(BOPV nº 205, de 25 de octubre de 2021)

PREAMBULO

I

Corresponde a los órganos forales del Territorio Histórico de Bizkaia la competencia exclusiva en materia de régimen electoral municipal y de entidades locales menores, todo ello al amparo de lo dispuesto en el artículo 37 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y en el artículo 7 Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

Por tanto, asumiendo la competencia exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia en materia de entidades de ámbito territorial inferior al municipio, es necesario establecer el régimen electoral de los órganos de estas entidades locales menores, definidas, en nuestro caso, en la Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de demarcaciones territoriales de Bizkaia. Todo ello con la finalidad de establecer un marco jurídico propio que regule aspectos derivados de su particularidad.

El capítulo II del Título V de la Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de demarcaciones territoriales de Bizkaia, contempla los órganos de gobierno y administración de las entidades locales menores, que se concretan en el Alcalde pedáneo o la Alcaldesa pedánea y la Asamblea vecinal o Concejo abierto.

Belandia, Lendoñoigoiti/Lendoño de Arriba, Lendoñoibeiti/Lendoño de Abajo y Mendeika conforman las cuatro únicas entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia y han conservado sus instituciones y defendido sus intereses y el patrimonio común de las mismas desde la época medieval hasta nuestros días. Todo ello, además, con una amplia participación de la comunidad en la actividad municipal, personalizando y optimizando la toma de determinadas decisiones singulares que les afectan.

Todas estas entidades pertenecen a la ciudad de Orduña y tienen la consideración de entidad local, así como personalidad y capacidad jurídica plena para el ejercicio de sus competencias.

En todo caso, de acuerdo con el artículo 58.2 de la Norma Foral 9/2012, de 5 de diciembre, de demarcaciones territoriales de Bizkaia, no se permitirá la constitución de nuevas entidades locales menores.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ERAKUNDE LOKAL TXIKIETAKO AUZO-ALKATEEN HAUTAKETARI BURUZKO URRIAREN 20KO 4/2021 FORU-ARAU

(205. zenbakidun EHAA, 2021eko urriaren 25ekoa)

HITZAURREA

I

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-organoei dagokie udal hauteskundearen araubidearen eta erakunde lokal txikien arloko eskumen eskusiboa. Hori guztia Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 37. artikuluan eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren babesean.

Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain harturik udalerría bano lurralde-eremu txikiagoko erakundearen arloan duen eskumen eskusiboa, ezarri behar da erakunde lokal txiki horietako organoen hauteskunde-araubidea, eta, gure kasuan, Bizkaiko Lurralde-mugapeei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Arauan definitzen dira erakundeok. Hori guztia, xedea izanik esparru juridiko propio bat ezartzea beren berezitasunetik datozkien alderdiak arautzeko.

Bizkaiko Lurralde-mugapeei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Arauak bere V. tituluaren II. kapituluari jasotzen ditu erakunde lokal txikiak gobernu eta administrazio-organok; zehazki, auzo-alkatea eta auzo-batzarra edo kontzeju irekia.

Belandia, Lendoñoigoiti, Lendoñoibeiti eta Mendeika dira Bizkaiko Lurralde Historikoko lau erakunde lokal txiki bakarrak, eta Erdi Arotik gaur egun arte kontserbatu dituzte beren instituzioak eta defendatu haien interesak zein ondare komuna. Horrez gainera, komunitateak parte-hartze zabala izan du udal-jardueran, eragiten dieten erabaki berezi jakin batzuk pertsonalizatuz eta optimizatuz.

Erakunde horiek guztiak Urduña hirikoak dira; erakunde lokalizat hartzen dira, eta beren eskumenak baliatzeko nortasun eta gaitasun juridiko osoa dute.

Nolanahi ere, Bizkaiko Lurralde-mugapeei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Arauaren 58.2 artikuluan arabera, ez da baimenduko erakunde lokal txiki berririk eratzea.

II

La presente Norma Foral consta de una parte expositiva y una parte dispositiva estructurada en cinco capítulos, con un total de veinte artículos, dos disposiciones adicionales y tres disposiciones finales.

El Capítulo I contempla las disposiciones generales en aras de delimitar el objeto y ámbito de aplicación de esta Norma Foral de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia, las personas electoras, así como aquellas que pueden resultar elegibles, señalando las causas de inelegibilidad e incompatibilidad.

En el Capítulo II «Organización electoral» se determinan las circunscripciones electorales y la Administración electoral. Además, contiene las previsiones relativas a la convocatoria de elecciones a Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores de Bizkaia, atribuyendo la competencia a la persona titular del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales o, en su defecto, del departamento competente por razón de la materia; fija la fecha de celebración, coincidente con las elecciones municipales y las elecciones a Juntas Generales; y, regula aquellas cuestiones referentes a la presentación de candidaturas y la previsión de falta de personas candidatas.

El Capítulo III, bajo el enunciado de «Votación y escrutinio», contiene todas aquellas previsiones a tener en cuenta a la fecha de celebración de elecciones, la proclamación de Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea e incluye, para aquellas entidades locales menores en que no haya existido candidatura, la necesidad de contar con la aceptación expresa de la persona elegida.

El Capítulo IV regula la toma de posesión del cargo de Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea, el periodo de mandato, así como los casos de falta de electos, renuncia, fallecimiento o incapacidad de la persona titular y ausencia o enfermedad que le impida temporalmente desarrollar sus funciones.

El Capítulo V alcanza la ordenación de subvenciones electorales a favor de los partidos políticos, coaliciones, federaciones y agrupaciones de electores y electoras.

En la elaboración de la presente Norma Foral se ha tenido en cuenta el procedimiento establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia y se ha realizado el preceptivo informe de evaluación previa de impacto en función del género.

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

II

Foru-arau honek badu azalpen-zati bat eta xedapen-zati bat. Xedapen-zatia bost kapitulutan egituraturik dago, eta, guztira, hogeitun artikulua, bi xedapen gehigarri eta amaierako hiru xedapen ditu.

I. kapituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu, xedezat harturik zera zehaztea: batetik, zein diren Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietakoko auzo-alkateen hautaketari buruzko foru-arau honen xedea eta aplikazio-eremua; bestetik, zein diren hautesleak, eta, azkenik, zein diren hautaezintasun- eta bateraezintasun-arrazoiak.

II. kapituluan, «Hauteskunde-antolamendua» izenekoan, hauteskunde-barrutiak eta hauteskunde-administrazioa zehazten dira. Kapitulu horrek orobat jasotzen ditu Bizkaiko erakunde lokal txikietakoko auzo-alkatetzetarako hauteskundeen deialdiei buruzko aurreikuspenak –non horren eskumena Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko titularrari esleitzen baitzaio, edo, bestela, gaiaren arabera eskudun den saileko titularrari–; finkatzen du hauteskundeen data –udal-hauteskunde eta Batzar Nagusietarako hauteskundeen egun bera–; erregulatzen ditu hautagaien aurkezpenari buruzko zerak, eta aurreikusten du zer egin behar den hautagaitzarik ez denean.

III. kapituluan jasotzen da, «Bozketa eta boto-kontaketa» izenburupean, zer izan behar den kontuan hauteskundeak egiten diren egunean eta auzo-alkateen aldarrikapenean ere, eta orobat jasotzen du, hautagaitzarik izan ez duten erakunde lokal txikietakoko delat hautaturiko pertsonaren berriazko onarpena izatea.

IV. kapituluan erregulatzen dira: nola jabetzen diren auzo-alkateak beren karguez; zer agintaldi dagokienez; zer egin hautetsirik ez bada eta nola jokatu karguari uko egiten badiote, titularra hiltzen bada edo ezindurik geratzen bada; eta zer egin behar den ezin dutenean, absentzia nahiz gaixotasuna dela medio, beren egin-kizunik bete.

V. kapituluan, azkenik, alderdi politiko, koalizio, federazio eta hautesle-elkarteentzako hauteskundeetako dirulaguntzak arautzen dira.

Foru-arau hau egitean kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako prozedura eta generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko nahitaezko txostena egin da.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

1. La presente Norma Foral tiene como objeto la regulación del procedimiento de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Esta Norma Foral se aplicará a las entidades locales menores constituidas dentro del Territorio Histórico de Bizkaia, que actualmente son Beldandia, Lendoñogoi/Lendoño de Arriba, Lendoñoibei/Lendoño de Abajo y Mendeika.

Artículo 2. Elección de Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea.

El Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea será elegido o elegida directamente por los vecinos y las vecinas de la correspondiente entidad local menor mediante un sistema de tipo mayoritario y sufragio universal libre, igual, directo y secreto.

Artículo 3. Personas electoras.

1. Tendrán la condición de personas electoras todas las personas, que residiendo en la correspondiente entidad local menor, gocen del derecho de sufragio activo en las elecciones municipales.

2. Para su ejercicio será indispensable estar inscrito en el censo electoral vigente.

Artículo 4. Elegibles.

Son elegibles todos los vecinos y vecinas mayores de edad que, reuniendo la condición de persona electora en la correspondiente entidad local menor, no se encuentren incurso o incurso en alguna de las causas de inelegibilidad e incompatibilidad a las que se refiere el artículo siguiente.

Artículo 5. Causas de inelegibilidad e incompatibilidad.

1. Son inelegibles para el cargo de Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea, las personas que se encuentren incurso en alguno de los supuestos de inelegibilidad previstos en la ley para ser Concejal o Concejala.

2. En todo caso, son inelegibles el Alcalde o Alcaldesa y Concejales y Concejales del Ayuntamiento al que pertenezca la entidad local menor, o cuya elección se pretenda, así como el personal funcionario y laboral al servicio del mismo.

3. Las causas de inelegibilidad a que se refieren los apartados anteriores, lo son también de incompatibilidad con la condición de Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea.

4. Son de aplicación para el cargo de Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea las causas de incompatibilidad previstas en las elecciones municipales para el cargo de Alcalde y Alcaldesa o Concejal y Concejala.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietako auzo-alkateak hautatzeko prozedura erregulatzea da foru-arau honen xedea.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoan eraturiko erakunde lokal txikiei aplikatzekoa da foru-arau hau: Beldandia, Lendoñogoi, Lendoñoibei eta Mendeika (horreek dira gaur egun).

2. artikulua. Auzo-alkateen hautaketa

Erakunde lokal txiki bakoitzeko auzotarrek aukeratuko dute, zuzenean, auzo-alkatea, eta, horretarako, gehien-goko hauteskunde-sistema bat erabiliko da, sufragio unibertsal aske, berdin, zuzeneko eta isilpekora baliatuko duena.

3. artikulua. Hautesleak.

1. Hautesle izango dira erakunde lokal txikian bizi eta udal-hauteskundeetan sufragio aktiboko eskubidea duten pertsona guztiak.

2. Eskubide hori erabiltzeko, ezinbestekoa izango da indarreko hautesle-errolan inskribatuta egotea.

4. artikulua. Nor den hautagarri.

Auzotar guztiak dira hautagarri, baldin eta kasuan kasuko erakunde txiki lokaleko hautesle izateko baldintzak betetzen badituzte eta ez badaude sartuta hurrengo artikuluan aipaturiko ezein hautaezintasun- eta bateraezintasun-kausatan.

5. artikulua. Hautaezintasun- eta bateraezintasun-kausak.

1. Auzo-alkate kargurako hautaezin dira legeak zinegotzi izateko aurreikusten dituen hautaezintasun-kasuetarikoren batean daudenak.

2. Nolanahi ere, hautaezin dira erakunde lokal txikiari dagokion Udaleko alkatea eta zinegotziak, edo karguotarako hautagai direnak, ez eta udal horren zerbitzura dauden funtzionarioak eta lan-kontratadun langileak ere.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren hautaezintasun-kausak orobat dira auzo-alkate izateko bateraezintasun-kausak.

4. Udal-hauteskundeetan alkate edo zinegotzi izateko aurreikusiriko bateraezintasun-kausak berdin dira aplikatzekoak auzo-alkatearen kargurako.

CAPÍTULO II ORGANIZACIÓN ELECTORAL

Artículo 6. Circunscripción electoral.

El territorio de cada una de las entidades locales menores constituye una circunscripción electoral a estos efectos.

Artículo 7. Administración electoral.

En aras de garantizar la transparencia y objetividad del proceso electoral y el principio de igualdad y, sin perjuicio de aquellas competencias reservadas a la Junta Electoral Central, la Administración Electoral estará integrada por la Juntas Electorales del Territorio Histórico de Bizkaia y de Zona de la localidad cabeza del partido judicial al que pertenezca el municipio donde se integran las entidades locales menores, así como por las Mesas Electorales que se constituyan a efectos de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 8. Convocatoria de elecciones.

1. La convocatoria de elecciones a Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea de las entidades locales menores será realizada por la persona titular del Departamento competente por razón de la materia.

Dicha convocatoria se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y entrará en vigor el mismo día de su publicación.

2. La fecha de convocatoria y de celebración de las elecciones en las entidades locales menores, así como los plazos de las mismas coincidirán con las elecciones municipales y las elecciones a Juntas Generales, con las excepciones que se recojan en esta Norma Foral.

Artículo 9. Presentación de candidaturas.

1. Las candidaturas podrán ser propuestas por los partidos políticos y federaciones inscritas en el registro correspondiente, las coaliciones debidamente constituidas y las agrupaciones de electores y electoras, conforme a las disposiciones previstas en la ley.

2. Cuando se trate de presentar candidaturas por agrupaciones de electores y electoras, el número de firmas necesario a presentar se determinará conforme al baremo fijado para aquellos municipios de menos de cinco mil habitantes.

3. Las candidaturas presentadas y las proclamadas se publicarán en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 10. Falta de candidaturas.

1. En caso de no presentarse ninguna persona candidata serán elegibles todas las personas que, reuniendo la cualidad de elector o electora, no se encuentren incursas en ninguna de las causas de inelegibilidad a las que se refiere el artículo 5 de la presente Norma Foral de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia.

II. KAPITULUA HAUTESKUNDE-ANTOLAMENDUA

6. artikulua. Hauteskunde-barrutia.

Erakunde lokal txiki bakoitzaren lurraldea da hauteskunde-barruti ondorio horietarako.

7. artikulua. Hauteskunde-administrazioa.

Hauteskunde-prozesuaren eta berdintasun-prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatzearen, eta hargatik eragotzi gabe hauteskunde-batzorde zentralari erreserbatutako eskumenak, honako hauez osaturik egongo da hauteskunde-administrazioa: Bizkaiko Lurralde Historikoko hauteskunde-batzordea, erakunde lokal txikiok kokatzen direneko udalerrriaren barruti judizialean buru den herriko eskualdeko hauteskunde-batzordea eta Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietak auzo-alkateak hautatzeko eratzen diren hauteskunde-mahaia.

8. artikulua. Hauteskunde-deialdia.

1. Erakunde lokal txikietak auzo-alkateen hauteskundeetarako deialdia gaiaren arabera eskumena duen saileko titularrak egingo du.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietan hauteskundeak egiteko eguna eta deia eta hauteskundeetarako epeak bat etorriko dira udal-hauteskundeekin eta Batzar Nagusietarako hauteskundeekin, foru arau honetan jasotako salbuespenekin.

9. artikulua. Hautagai-zerrenden aurkezpena.

1. Dagokion erregistroan inskribatutako alderdi politikoei eta federazioei, behar bezala eraturako koalizioei eta hautesle-elkarteek proposatu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak, legean aurreikusitako xedapenen arabera.

2. Hautesle-elkarteen hautagitzak aurkeztu behar direnean, bost mila biztanletik beherako udalerrietarako ezarritako baremoaren arabera zehaztuko da zenbat sinadura aurkeztu behar diren.

3. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira aurkeztutako eta aldarrikatutako hautagitzak.

10. artikulua. Hautagai-zerrendarik eza.

1. Pertsona hautagairik aurkezten ez bada, hautesle guztiak izango dira hautagarri, baldin eta ez badaude sarturik Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietak auzo-alkateen hautaketari buruzko Foru Arau honen 5. artikuluan aipatzen direnetariko ezein hautaezintasun-kausatan.

2. Se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia la relación de entidades locales menores en las que no se hayan presentado candidatos.

CAPÍTULO III VOTACIÓN Y ESCRUTINIO

Artículo 11. Votación.

La elección de Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea se realizará simultáneamente a la de los Concejales y las Concejales en las elecciones municipales y a la de los apoderados y apoderadas en las elecciones a Juntas Generales, utilizándose urnas distintas, en la sección o secciones constitutivas de la entidad local menor.

Artículo 12. Entidades locales menores sin candidatura.

En el caso de entidades locales menores en las que no existan personas candidatas, cada elector o electora escribirá en la correspondiente papeleta confeccionada a tal efecto, el nombre y apellidos de la persona que proponga para ocupar el cargo, de entre las personas que reúnan la cualidad de elector/a y no se encuentren incurso en las causas de inelegibilidad a las que se refiere el artículo 5.

Artículo 13. Escrutinio.

Concluida la votación, una vez verificado el escrutinio de las papeletas de elección de Concejales y Concejales y de las papeletas de elección de apoderados y apoderadas a Juntas Generales, se procederá, en último término, al escrutinio de las papeletas de elección de Alcaldes pedáneos o Alcaldesas pedáneas.

Hecho el escrutinio se levantará la oportuna Acta, que contendrá el resultado total de la votación, y en su caso, las incidencias y reclamaciones que se produzca

Artículo 14. Proclamación de Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea.

La Junta Electoral de Zona competente, una vez celebrado el acto de escrutinio general y, en su caso, resueltas las reclamaciones o protestas, proclamará Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea de la respectiva entidad local menor a aquel candidato que obtenga mayor número de votos.

En caso de empate, se resolverá por sorteo.

Artículo 15. Aceptación del cargo de Alcalde pedáneo o Alcaldesa Pedánea.

En aquellas entidades locales menores en que no han existido candidatos a Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea, la Junta Electoral de Zona competente lo comunicará debidamente a las personas elegidas, las cuales podrán rechazar expresamente mediante escrito dirigido a la misma en el plazo de cinco días hábiles siguientes a contar desde la fecha de recepción de la notificación.

2. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da pertsona hautagairik aurkeztu ez den erakunde lokal txikien zerrenda.

III. KAPITULUA BOZKETA ETA BOTO-KONTAKETA

11. artikulua. Bozketa.

Aldi berean egingo dira auzo-alkateen hautaketa, udal-hauteskundeetako zinegotzien hautaketa eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetako ahaldunen hautaketa, hautestontzi desberdinak erabiliz, erakunde lokal txikiko eratze-atalean edo -ataletan.

12. artikulua. Hautagaitzarik gabeko erakunde lokal txikiak.

Erakunde lokal txikietan, hautagairik ez badago, hautesle bakoitzak beren-beregi prestaturiko boto-paper batean idatziko ditu hautesle izaera duten eta 5. artikuluan aipatzen diren hautaezintasun-kausetan sartuta ez dauden pertsonen artean kargua betetzeko proposatzen duen pertsonaren izen-abizenak.

13. artikulua. Boto-kontaketa.

Bozketa amaiturik, eta behin zinegotziak hautatzeko boto-paperen zenbaketa nahiz Batzar Nagusietarako ahaldunak hautatzeko boto-paperen zenbaketa egiaztatu ondoren, auzo-alkateak hautatzeko boto-paperen zenbaketa egingo da azkenik.

Boto-kontaketa egin ondoren, dagokion akta egingo da. Akta horretan bozketaren emaitza osoa jasoko da, eta, hala badagokio, gertatzen diren gorabeherak eta erreklamazioak.

14. artikulua. Auzo-alkatea aldarrikatzea.

Eskualdeko hauteskunde-batzorde eskudunak, boto-zenbaketa orokorra egin ondoren eta, hala badagokio, erreklamazioak edo protestak ebatzi ondoren, boto gehien lortzen dituen hautagaia aldarrikatuko du toki erakunde txikiko auzo-alkate.

Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

15. artikulua. Auzo-alkatearen kargua onartzea.

Auzo-alkate izateko pertsona hautagairik izan ez duten erakunde lokal txikietan, eskualdeko hauteskunde-batzorde eskudunak behar bezala jakinaraziko die hautesle hautatuak izan direla, eta pertsona horiek berriaz uko egin ahal izango diote karguari, idazki bat igorri batzordeari jakinarazpena jaso eta bost egun balioduneko epean.

Artículo 16. Falta de personas electas.

En aquellos casos de falta de electos, o de rechazo del cargo por la persona elegida, será proclamado como tal Alcalde o Alcaldesa pedánea siguiente candidato o la siguiente candidata que más votos hubiera obtenido en estas elecciones. Si no existiera, la Diputación Foral de Bizkaia, oídos previamente los vecinos y las vecinas de la entidad local menor, teniendo en cuenta criterios de igualdad entre mujeres y hombres, nombrará Alcalde pedáneo gestor o Alcaldesa pedánea gestora hasta la celebración de nuevas elecciones conforme a lo previsto en la presente Norma Foral de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia. En todo caso, cuando resulte imposible el nombramiento de Alcalde pedáneo gestor o Alcaldesa pedánea gestora, la Diputación Foral de Bizkaia asumirá directamente la gestión ordinaria de la entidad local menor, no pudiendo adoptar acuerdos para los que se requiera una mayoría cualificada.

CAPÍTULO IV

TOMA DE POSESIÓN Y MANDATO**Artículo 17. Toma de posesión de Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea.**

Las personas electas tomarán posesión del cargo de Alcalde pedáneo o Alcaldesa pedánea de la entidad local menor correspondiente en sesión pública el vigésimo día posterior a la celebración de elecciones, coincidiendo con la fecha de constitución de las corporaciones locales, y una vez elegido o elegida el Alcalde o la Alcaldesa del municipio al que pertenezca la misma, salvo presentación de recurso contencioso-electoral contra la proclamación de electos y electas, en cuyo supuesto tendrá lugar el cuadragésimo día posterior a la celebración de elecciones.

Artículo 18. Mandato.

El mandato de los Alcaldes pedáneos y las Alcaldesas pedáneas será de cuatro años, idéntico al mandato de los Concejales y las Concejales de los Ayuntamientos y coincidente con ellos, finalizando el día anterior al de la celebración de las siguientes elecciones. No obstante, continuarán en funciones para la administración ordinaria de la entidad local menor hasta la toma de posesión de sus sucesores y sucesoras.

Artículo 19. Vacantes.

1. En aquellos casos en que con posterioridad a la toma de posesión se produzca renuncia, fallecimiento, o incapacidad será proclamado como tal el siguiente candidato o la siguiente candidata que más votos hubiese obtenido en estas elecciones. Si no existiera, la Diputación Foral de Bizkaia, oídos previamente los vecinos y las vecinas de la entidad local menor, teniendo en cuenta criterios de igualdad entre mujeres y hombres, nombrará Alcalde pedáneo gestor o Alcaldesa pedánea gestora hasta la celebración de nuevas elecciones conforme a lo previsto en la presente Norma Foral. En todo caso, cuando resulte imposible el nombramiento de Alcalde pedáneo gestor o Alcaldesa pedánea gestora, la Diputación Foral de

16. artikulua. Autetsirik ez izatea .

Hautetsirik ez badago, edo hautetsiak karguari uko egiten badio, hauteskunde hauetan boto gehien eskuratu duen hurrengo hautagaia aldarrikatuko da auzo-alkate. Ez balego hurrengorik, Bizkaiko Foru Aldundiak, aurretiaz erakunde lokal txikiko auzotarrei entzunda eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak aintzat hartuta, auzo-alkate gestore bat izendatuko du beste hauteskunde batzuk egin arte, Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietako auzo-alkateen hautaketari buruzko foru-arau honetan ezarritakoarekin bat. Nolanahi ere, ezin bada auzo-alkate gestorerik izendatu, Bizkaiko Foru Aldundiak berak hartuko du bere gain erakunde lokal txikiaren gestio arrunta, baina ezingo du hartu gehiengo kualifikatua behar duen erabakirik.

IV. KAPITULUA

KARGUAZ JABETZEA ETA AGINTALDIA**17. artikulua. Auzo-alkatearen karguaz jabetzea.**

Jendaurreko bilkuran hartuko dute hautetsiek dagokien erakunde lokal txikiko auzo-alkateren kargua, hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean, korporazio lokalak eratzearekin bat eta behin erakunde lokal txikia dagoen udalerriko alkatea hautatu ondoren, non eta ez den aurkezten hautetsien aldarrikapenaren aurkako hauteskundeekiko auzi-errekurtsorik, halakoetan hauteskundeak egin eta berrogeigarren egunean izango baita kargu hartzea.

18. artikulua. Agintaldia.

Auzo-alkateen agintaldia lau urtekoa izango da, udaletako zinegotzien agintaldi berbera eta aldi berekoa, eta hurrengo hauteskundeak egin aurreko egunean amaituko da. Hala ere, auzo-alkateek jardunean jarraituko dute, erakunde lokal txikiaren ohiko administrazioan, harik eta haien ondorengoek kargua hartu arte.

19. artikulua. Hutsaldiak

1. Auzo-alkatea karguaz jabetu ondoren uko egiten badio, hil egiten bada edo ezintasuna gertatzen bazaio, hauteskunde hauetan boto gehien eskuratu duen hurrengo hautagaia aldarrikatuko da auzo-alkate. Ez balego hurrengorik, Bizkaiko Foru Aldundiak, aurretiaz erakunde lokal txikiko auzotarrei entzunda eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak aintzat hartuta, auzo-alkate gestore bat izendatuko du beste hauteskunde batzuk egin arte, foru-arau honetan ezarritakoarekin bat. Nolanahi ere, ezin bada auzo-alkate gestorerik izendatu, Bizkaiko Foru Aldundiak berak hartuko du bere gain erakunde lokal txikiaren gestio arrunta, baina ezingo

Bizkaia asumirá directamente la gestión ordinaria de la entidad local menor, no pudiendo adoptar acuerdos para los que se requiera una mayoría cualificada.

2. En casos de ausencia o enfermedad que impidan al Alcalde pedáneo o a la Alcaldesa pedánea de la entidad local menor desarrollar temporalmente sus funciones, el Alcalde pedáneo o a la Alcaldesa pedánea designará de entre los vecinos y las vecinas que integran la Asamble vecinal o Concejo abierto a quien haya de sustituirle.

CAPÍTULO V FINANCIACIÓN PÚBLICA DE GASTOS ELECTORALES

Artículo 20. Subvención pública de gastos electorales.

1. La Diputación Foral de Bizkaia subvencionará los gastos electorales de los partidos políticos, federaciones, coaliciones y agrupaciones de electores y electoras conforme a las previsiones contenidas en la ley para las elecciones municipales.

2. En ningún caso la Diputación Foral de Bizkaia concederá adelantos de subvenciones de gastos electorales a las agrupaciones de electores y electoras que las hubieran obtenido en las últimas elecciones a Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea de las entidades locales menores de Belandía, Lendoñogoiti/ Lendoño de Arriba, Lendoñobeiti/ Lendoño de Abajo y Mendeika.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Disposición adicional primera.- Junta Electoral de Zona competente.

En aras de la elección en el Territorio Histórico de Bizkaia de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores de Belandía, Lendoñogoiti/Lendoño de Arriba, Lendoñobeiti/Lendoño de Abajo y Mendeika, corresponderá a la Junta Electoral de Zona de Bilbao el ejercicio de aquellas competencias atribuidas a las juntas electorales de zona por la presente Norma Foral de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia y la ley.

Disposición adicional segunda.- Gastos electorales.

1. Todos los gastos que comporte el proceso de elección a Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores constituidas serán a cargo de los Presupuestos generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. La celebración de elecciones en el Territorio Histórico de Bizkaia a Alcalde pedáneo y Alcaldesa pedánea no causará derecho a nuevas gratificaciones e indemnizaciones a aquellas que, en su caso, procedan a favor de los y las miembros de las Juntas Electorales y su personal colaborador, así como a favor del personal de los Ayuntamientos que preste servicios extraordinarios por razón de la celebración de elecciones municipales y forales.

du hartu gehiengo kualifikatua behar duen erabakirik.

2. Absentzia nahiz gaixotasuna dela-eta erakunde lokal txikiko auzo-alkateak ezin badu aldi batez bere zeregina bete, bere ordezeko bat izendatuko du auzo-batzarra edo kontzeju irekia osatzen duten auzotarren artean.

V. KAPITULUA HAUTESKUNDE-GASTUEN FINAN- TZAKETA PUBLIKOA

20. artikulua. Hauteskunde-gastuetarako dirulaguntza publikoa.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza emango du alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteen hauteskunde-gastuetarako, legeak udal-hauteskundeei buruz aurreikusten duenarekin bat.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak ezein kasutan ez die emango hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinik Belandía, Lendoñogoiti, Lendoñobeiti eta Mendeika erakunde lokal txikietako hautesle-elkarteei, baldin eta auzo-alkateetarako azken hauteskundeetan dirulaguntzak eskuratu bazituzten.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria.- Eskualdeko hauteskunde-batzorde eskuduna.

Bizkaiko Lurralde Historikoan Belandía, Lendoñogoiti, Lendoñobeiti eta Mendeika erakunde lokal txikietako auzo-alkateak hautatzeko, Bilboko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari dagokio betetzea bai Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietako auzo-alkateen hautaketari buruzko foru-arau honek eta bai legeak eskualdeko hauteskunde-batzordeei esleitzen dizkieten eskumenak.

Bigarren xedapen gehigarria.- Hauteskunde-gastuak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kontura izango dira erakunde lokal txikietako auzo-alkateak hautatzeko prozesuak berekin dakartzan gastu guztiak.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoan auzo-alkateak aukeratzeko hauteskundeak egiteak ez die eskersari eta kalte-ordain berriarako eskubiderik ekarriko udal- nahiz foru-hauteskundeak direla-eta halakoak jasotzen dituzten hauteskunde-batzordeetako kideei nahiz haien laguntzailerei, ez eta hauteskundeongatik zerbitzu bereziak ematen dituzten udal-langileei.

Teniendo en cuenta que la Junta Electoral de Zona competente se corresponde con aquella a quien corresponde la competencia en materia de elecciones municipales, la Diputación Foral de Bizkaia tampoco abonará gastos de locomoción o cualesquiera otras indemnizaciones adicionales a favor de los Jueces de Primera Instancia o de Paz.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera.- Habilitación para el desarrollo reglamentario.

Se habilita a la persona titular Departamento competente por razón de la materia, para dictar cuantas disposiciones resulten necesarias para el desarrollo y aplicación de esta Norma Foral.”

Disposición final segunda.- Derecho supletorio.

En lo no previsto en la presente Norma Foral de elección de Alcaldes pedáneos y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia y en cuantas disposiciones se dicten en su desarrollo serán de aplicación las normas vigentes en la legislación de régimen electoral general, y especialmente las previstas para las elecciones locales, con las adaptaciones derivadas, en su caso, del carácter y ámbito del proceso electoral.

Disposición final tercera.- Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Kontuan izanik eskualdeko hauteskunde-batzorde eskudun bera dela orobat eskudun udal-hauteskundearen arloan, lokomozio-gasturik edo bestelako kalte-ordain gehigarririk ere ez die ordainduko Bizkaiko Foru Aldundiak lehen auzialdiko epailei nahiz bake-epaileei.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena.- Araua errege-lamenduz garatzeko gaikuntza.

Gaikuntza ematen zaio gaiaren arabera eskumena duen saileko foru-diputatuari foru-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako bigarren xedapena.- Zuzenbide ordezailea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde lokal txikietaiko auzo-alkateen hautaketari buruzko foru-arau honetan eta berau garatzeko ematen diren xedapen guztietan aurreikusi gabekoari dagokionez, hauteskunde-araubide orokorrari buruzko legedian indarrean dauden arauak izango dira aplikatzekoak; bereziki, hauteskunde lokalentarako aurreikusten direnak, hauteskunde-prozesuaren izaerak eta eremuak eskatzen dituen egokitzapenak eginik, hala badagokio.

Amaierako hirugarren xedapena.- Indarrean jartzea.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean foru-arau hau.